

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko 2021eko zerga borondatezko epean ordaintzea

Consuelo Auzmendi Jiménez Asparreneko Udaleko alkateak,

JAKINARAZTEN DUT:

2021eko urriaren 11tik abenduaren 11ra bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, kobratzeko moduan egongo direla, borondatezko epean, landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2021eko ekitaldiko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea:

a) Borondatezko epea: 2021eko urriaren 11tik abenduaren 11ra, egun biak barne.

b) Premiamendu aldia: 2021eko abenduaren 12tik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errelegua aplikatuta (Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua:

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean Udalen diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko enparantza 1, Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabanken, Laboral Kutxan, La Caixan eta Caja Ruralen dituen kontuetakoren baten.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Asparreneko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko irailaren 16a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ